

“GEUREA IKURRIÑA”

Igorrek behin eta berriro egindako apostuari baietz esan nion azkenez, nahiz eta nire barrukoak oso bestelakoa agindu. Zer uste zuen babo horrek, danok bere desafioen aurrean burua makurtu behar genuela ala? Bera bai oiloa baino koldarragoa! hitzontzi hutsa da, hitzez gainezkatzen zaio barrena eta gero ezin eutsi bere panparrokeriei! Oraingo honetan hitza bete beharko du. Berak eta nik ere bai, hauxe da txarrena. Ederrean sartu naiz ergel horri lezio bat eman nahian. Ez dakit zein den ergelago, egia esan!

Xabik, bere barnegogoetatik ate, eta ikusi ahal izan zuen non zeuden, bai bera eta bai Igor. Olatzarko kanposantuan sartzeko pronto. Igorrek krixketa jiratu, atea zabaldu eta barrura biak. Gau iluna zen, ilargi eta izarrik gabea, ... bi metrotara edo, ez zen deus ikusten... Hilerrian sartu eta lehenengo hilobi erroiarekin egin zuten topo... tarteko pasilutik abiatu eta atzeko horma ondoko hilobi haundia dagoen tokira iritsi ziren, ezker-eskubi hilobi zuri zuriak gaueko iluntasuna beren zurtasun ankerraz urratuz, zaurituz,...

“HEMEN DATZA, JOSEFINA GARMENDIA ISASTI” irakur ahal izan zuen alboan utzitako hilobi baten epitafioan. Aurrera segitu nuen Igor ero horren atzetik. Tximist txarrek jo dezaten! bortitz bat bururatu zitzaidan. Alu horrek ekarri nau honera, bere harropuzkeriak bultzatuta! Hurrengoan jai dik! esan dezala nahi duen guztia. Nik entzungorrenaren joko dudala. Ni-



Hilerrian sartu eta lehenengo hilobiekin egin zuen topo.

...tarteko pasilutik
 abiatu eta atzeko
 horma haundia
 dagoen tokira iritsi
 ziren, ezker-eskubi
 hilobi zuri-zuriak
 gaueko iluntasuna
 beren zurtasun
 ankerraz urratuz,
 zaurituz,...



re pentsamenduetatik berriro atera, eta errealtate higuingarri hartara itzulita, ikusi ahal izan nuen nola Igor, eskuan zeraman palankarekin, aurrean genuen hilobi zuri hozkilotsu horretako harlausa irekitzen ari zen.

— Lagundu zak koldarra! —esan zidan nire harrotasuna berriro zaurituz— atsoa baino koldarragoak zeazte, bai hi eta bai kanpoan gelditu den koadrila guztia!

— Lagundu nazak aguro! —errepikatu zidan ozenki—

Bion artean ireki genuen harlausa zamatsua eta hauts pilo baten ondoan buruhezur bat aurkitu genuen, Igorrek harrapaladan eta korrika hartu zuena, gero lagunaren aurrean erakusteko eta bere balentria garbiki uzteko. Buruhezuraren azpian bazegoen brontzezko lepoki edo antzeko zeozer. Jaso nuen harriduraz beterik, eta grabaturik honako testua leitu nuen: MADDI PUI SALABERRIA. Kanposantutik irten bezain laster Igorrek denori erakutsi zien neskaren buruhezurra trofeoren bat bailitzan. Gero Lezoko bidea hartuta, makina ixtorio eta txorakeri aditu behar izan genuen Igorren ahotik. Beti bera, bera, bera,... eta bere burua, hamalau halakoa! Azkenean plazako "Aizpea" tabernan bukatu genuen, larunbatero egiten dugun bezala, Prexeni zurito batzuk eskatu, zurrupatu amen batean, eta etxera. Bihar "ERNE"-ra joango gara dantza batzuk egitera! Bihar arte!

Hurrengo egunean, igande askotan egiten dugun bezalaxe, ERNEra joan ginen, eskeletoa mugitzera, eta ahal bazen ligeren bat bilatzera. Dantza eskatu, eta neri neska lezoar panpoxa batekin egokitu zitzaidan. Hura bai neska ederra! Maddi izena zuen eta eztia baino gozoagoa zirudien. Laster maitemindu nintzen berareta, eta nire sentimenduen seinale, paparrean neraman txapatxoa oparitu nion. "GEUREA IKURRIÑA" zioen nire txapak. Badakit ez zela oso erromantikoa, baina besterik ez neramanez, huraxe eman behar izan nion. Eta zergatik ez? oso polita baitzen. Berak goxoki hartu zuen eta irriparez bere paparrean ipini zuen. Ondo hemen? —esan zidan nire begietara begiratuz— Bai, bai primeran! —erantzun nion, musutxo bat ematen nion bitartean— Ilunabarrean, Ernetik atera ginenean, ni ez nintzen koadrilakoekin etxera itzuli, Maddirekin baizik. Ijurko auzoko dorre batean bizi zen, eta bertaraino lagundu nuen. Hurrengo iganderarte! batez agurtu nuen.

Hurrengo igandean Ernera itzuli nintzen, baina han ez zegoen nire Maddi. Hurrengoan gauza bera, eta hurrengoan ere, Maddiren arrastorik ez. Kezkaturik, Lezorantz abiatu nintzen, eta agurtu ginen sotoan sartu nintzen. Buzoietan begiratu nuen hasieran, baina ez nuen bere izena aurkitu. Igo nintzen lehenengo solairura, eta ikusi nuen lehenengo ateko txirrinean jo nuen. Andre zahar bat atera zitzaidan, eta Maddi izena aipatu nionean, hasieran holako izenakorik ez zegoela etxe hartan erantzun bazidan gero hobeto pentsatuta edo, bostgarren solairura bidali ninduen, Puitarren etxebizitzera hain zuzen. Igogailurik hartu gabe, igo nituen lau solairuak, eta andreak esandako ate aurrean gelditu nintzen, nagusien txartela irakurri nuen, ESTEBAN PUI/INES SALABERIA. Bai bera zen. Jo nuen azkar baino azkarrago txirrina, eta berehala ireki zidaten atea.

— Arratsaldeon! —baita zuri ere!— erantzun zidan atea ireki egin zidan andreak.

— Barkatu nire atrebentzia andrea, baina Maddirekin hitzegin nahiko nuke!

— Zer? zer esaten duzu motel?

— Maddirekin hitzegin nahi dudala, ajola ez bazaizu behintzat!

— Maddirekin diozu?, baina gazte, ondo aditzen al dizut?

— Bai andre, Maddirekin. Orain dela hiru aste Ernen ezagutu nuen eta gustatuko litzaidake berarekin hitzegitea, molestiarik ez bada.

— Hau adituta, andreak nigarrari ekin zion, eta malkoen artean esplikatu zidan bere alaba duela bi urte hil zela Ernetik etxera zetorrela kotxe batek harrapatuta—. Nik ezin nuen sinistu, eta zenbait segundu ondoren, korrika atera nintzen, gelditu gabe nire txera iritsi nintzen arte. Ezinezkoa zen. Okerraren bat egon behar zuen. Ezin zuen izan! Holako pentsamenduetan ari nintzela Maddiren abizenak etorri zitzaizkidan gogora: PUI SALABERRIA, MADDI PUI SALABERRIA... eta orduan konturatu nintzen, huraxe bera zela Olatzarko hilobi hartan, Igorrekin batera aurkitu nuen brontzezko lepoki hartan jartzen zuen izena: MADDI PUI SALABERRIA. Gehiegi pentsatu gabe, hartu nuen nire zamarra, eta eroaren gisa abiatu nintzen Olatzarko kanposantu aldera. Sartu bezain pronto aurkitu nuen bilatzen ari nintzen hilobia. Hurbildu nintzen eta irakurri nuen bertan idatzirik zegoena, beste zenbait izenen azpian Maddirena agertzen zen: MADDI PUI SALABERRIA. Gehiegizkoa zen, odol hotza sentitu nuen nire gorputz osoan zehar pasiatzen. Nola liteke izan! Etsiturik, erdi zoraturik, kanporako pasilua hartu nuen, baina joan aurretik azken begirada bat bota nion hilobiari, eta nire harridurarako nik emandako txapa ikusi ahal izan nuen hilobiaren gainean. Bai, berbera zen! Hartu nuen nire hatzamar dardartien artean eta irakurri nuen: "GEUREA IKURRIÑA".

KARLOS BARRENTSORO